



Bazen behin margolari bat, Flamenko izenduna eta Andaluziarra. Azken boladan, oso kezkatuta zegoen ideia gabe geratu zelako. Ez zekien zer margotu !.

—Baina, zer gertatzen ari da?—pentsatu zuen Flamenkok.

Bere lagun, dortoka jakintsuari, kontatu zion gertatzen ari zitzaiona.

—Flamenko, zuk ez dakizu zure emozioak identifikatzen eta horregatik orain koloreak ere txarto nahasten dituzu eta zure margolan guztiak grisak gelditzen zaizkizu.

—Ah... eta zer egin dezaket? Ni ... margolaria naiz! Koloreak behar ditut!

—Baita emozioak ezagutu ere, lagun.

Eta momentu horretan bere emozioak ezagutzeko abentura hasi zuen. Bidean su handi bat ikusi zuen eta...

—Flamenko... geldi!!! Zure koadroak margotzeko gorria beharko duzu, ezta? Baina, zuk ez duzu merezi.

—Eta zergatik ez?

—Koloreak menperatzeko pertsona jakintsua izan behar duzulako. Zure emozioak eta sentimenduak ondo ezagutu behar dituzu eta zu ez zara gai hori egiteko.

— Nola ezetz?

—Entzun duzuna. Ez zarela gai.

Flamenkok ez zuen ezer erantzun eta isilik geratu zen.

—Eta orain, zer sentitzen duzu?— galdetu zion Suak.

—Ba... haserrea! Zuk esan duzunak haserretu egin nau!

—Oso ondo, ulertu duzu. Sentitu duzuna haserrea izan da. Nik apropos haserretu zaitut, eta orain kolore gorria emango dizut.

Eta Flamenkok bere bidea jarraitu zuen. Bat-batean bero handia sentitu zuen. eguzkia zen!

—Kaixo, Flamenko! — esan zion eta musu bero asko eman zizkio

—Suposatzen dut zu horiaren jabea izango zarela

—Jabea, sugea, paregabea, zure ilea— erantzun zion Eguzkiak.

—Baina zer zorokeria esaten ari zara? – esan zion barrezka Flamenkok

—Zu horiz margotzen! Nola sentitzen zara?

—Ba...oso ondo, alai nago. Irribarrea atera didazu zure esaldi arraro horrekin.

—Hori da, Flamenko, sentitu duzuna alaitasuna da. Margo hori hau irabazi duzu.

Aurrera jarraituta, bidean urrutitik zetorren negar bat entzun zuen , ibaia negar batean zegoen.

—Kaixo Ibaia! Baina zer gertatzen zaizu?

—Utzi bakean margolaria! Zuk ez zenuke inoiz ulertuko!

—Kontatzen badidazu, agian lagunduko dizut.

—Ba... Itsasoa ni baino handiago da eta gainera nirekin oso arrain gutxi bizi dira...

—Baina zuk harri asko dituzu eta ur geza duzu. Nik zurekin primeran pasatzen dut!

—Egia da...triste nago baina tristura gabe, ez dago alaitasunik. Mila esker! Eskerrak emateko, kolore urdina eman zion.

Bat-batean ordea, dena ilunpean geratu zen. Gaua egin zen.

—Flamenkooooooooo!— oihukatu zuen Gauak.

—Bai?? Nor zara??

—Ni Gauaaaaaa naiz. Buuuuhh!!

—Beldurra duzu, ezta?

—Bai.

—Eta gainera, gogoratu beldurra koldar hutsa dela. Tori, hemen daukazu kolore beltza.

Flamenkok bere abentura jarraitzeari ekin zion eta baso batera heldu zen. Han, ahots bat entzun zuen eta oso urduri jarri zen. Bertako zuhaitz batek esan zion orduan:

—Egin nirekin. Arnasa hartu sudurretik eta orain ahotik bota.

Eta Flamenkok errepikatu zuen esandakoa eta orain oso lasai sentitzen zen.

—Flamenko, urduri jartzen zarenean arnasa ariketa hau egin eta baretuko zara. Lasaitasuna da orain sentitu duzuna. Nire aholkuaz gogoratzeko kolore berdea oparituko dizut.

Orain Flamenko berriro margotzeko prest zegoen, bere emozioak ezagutzen zituen! Koloreak bazituen baina... inspirazioa behar zuen!!

—Irudimena astintzeko musika entzungo dut! —pentsatu zuen margolariak.

Eta horrela, musika bat sortu zuen bere izenarekin, Flamenko. Andaluzian sortutako musika estiloa